



187/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 11KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, BEHIN BETIKO BARNE MUGIKORTASUNAREN BIDEZ/ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN BIDEZ/ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ FAKULTATIBO ESPEZIALISTA TEKNIKO LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA. LANPOSTU HORI OSPITALEKO FARMAZIAKO ZUZENDARITZAKO DA, ETA FARMAZIA ZERBITZU KORPORATIBOAN DAGO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUA: Fakultatibo Espezialista Ospitaleko Farmaziako Teknikaria.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Farmaziako Zerbitzu Korporatiboa.

LANALDIA. Zatitua (Vitoria-Gasteiz)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE; derrigortasun-data: 2010-06-01.

BETEKIZUNAK: Farmaziako lizentziatu titulazioa, Ospitaleko Farmazian espezializatuta.

Behin betiko Barne Mugikortasuna eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratudun finkoa izatea, eta lanpostua jabetzan izatea Zuzendaritza Nagusian, Ospitaleko Farmaziako teknikariaren kategorian.
- Mugikortasun horizontalaren xede den destinoaren kategoria/lanpostu funtzional berekoa izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den titulazio-maila bereko edo txikiagoko beste kategoria batekoa izatea.
- Ospitaleko Farmaziako teknikariaren karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-kontratu finkorik ez izatea, izendapen edo kontratu horrekin lotutako administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.



- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde batera atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.

- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean badago, egoera horretan urtebete baino gehiago jarraian egotea.

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa eta deitutako azken EPEko kategoriaren deialdiko oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-eskakizunak izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetan, Ospitaleko Farmaziako teknikariearen Kategorian.

- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota ez badaude):

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 50 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 50 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatze 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendaritzari (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz) zuzendu beharko diote eskabidea, datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako "Curriculum Vitae" arekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta dutenek izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatze egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

- 1.- Zuzendaritza Nagusiaren behin betiko barne-mugikortasuna. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. – Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
3. – Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
4. – Zerbitzu-erakundearen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideak Hautatu eta Hornitzeko zuzendariordea edo haren ordezkaria buru dela, eta kide hauek izango ditu: Asistentzia Sanitarioko zuzendaria, Osasun arloko Zerbitzuko burua, Farmaziako Programa Korporatiboaren koordinatzailea eta Horniketa Zerbitzu Korporatiboko burua (azken horrek idazkari gisa jardungo du).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 11



 **Osakidetza**
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA